



## MERKATARITZA MAHAIA / MESA DE COMERCIO

2021eko irailaren 23a

### EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDA:

1. Sektorearen egungo egoeraren analisia.
2. Gai hauek jorratzen dituen informazioa:
  - 2021eko Getxo Bonoa: kanpainari buruzko datuak.
  - Etekinen merkatua.
  - Tokiko kontsumoarekiko sentsibilizazio eta sustapen kanpaina
  - GetxON: marka berritzea.
  - Saltokien-bilatzailearen berritzea.
  - Dinamizaziorako 2021erako laguntzak.
  - Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzak.
  - “Getxo Bihotzetik” proiektua.
  - Gabonetako kanpaina 2021.
  - ONLINE prestakuntzak eta Batuz Sistema.
  - 2022 urtera begira:
    - ✓ Merkataritza Birgaitzeko Plana (PERCO).
    - ✓ Hutsik dauden lokalen kudeaketa.
    - ✓ Digitalizaziorako laguntzak.
    - ✓ Elikadura osasungarria sustatzeko kanpaina.
3. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida eta Algortako Dendaren proposamenak.
4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk.
5. Hurrengo urratsak.

### BATZARKIDEAK: (% 100)

| DEITUAK                         | BATZARKIDEAK                      | ABSENTZIAK    |                    |
|---------------------------------|-----------------------------------|---------------|--------------------|
|                                 |                                   | Justifikatuak | Justifikatu gabeak |
| Algorta-Andra Mariko ordezkaria | Jokin Aresti (JOYERÍA IÑAKI)      | X             |                    |
| Algorta-Andra Mariko ordezkaria | Oriente Enríquez (Tejidos Lindau) | X             |                    |
| Portu Zahar, Kirol Portu eta    | Kimetz Garate                     | X             |                    |



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

|   |  |   |  |  |
|---|--|---|--|--|
| Neguriko ordezkaria                           | (ZURIKALDAI<br>NEGURI)                     |   |  |  |
| Erromoko ordezkaria                           | Maite Sesumaga<br>(MAITESKULANAK)          | X |  |  |
| Areetako ordezkaria                           | Sara Mata<br>(COLORES)                     | X |  |  |
| Areetako ordezkaria                           | Itxaso Zelaia<br>(CARNICERÍA JUAN<br>MARI) | X |  |  |
| Algortako Dendak                              | Amaia Sertutxa                             | X |  |  |
| Getxo Enpresa                                 | Amaia Lauzirika                            | X |  |  |
| Romo Bizirik                                  | Ainhoa Calderón                            | X |  |  |
| Getxoko Udala - Sustapen<br>Ekonomikoko Arloa | Mirene<br>Zabalgogezcoa                    | X |  |  |
|   | Sonia Urdiain                              | X |  |  |
|   | Sara de la Fuente                          | X |  |  |

## EDUKIAK:

### 1. Batzarkideei agurra eta sektorearen egungo egoeraren analisia.

Bilerara gerturatutakoak agurtu eta aurkeztu dira, jarraian udako denboraldiaren inguruko talde-eztabaida bat egiteko eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

Oriente Enríquezek, Tejidos Lindauko eta Algorta-Andra Mari guneko ordezkariak, adierazi du denboraldia ondo joan dela ekainaren hasierara arte, nahiz eta egia den 2020an baino jende gutxiago ibili dela. Azkenaldian bere auzoa hutsik ikusi du. Sara Matak, Colores mertzeria eta lentzeriako arduradunak, ondo egin du lan Areetan “Eskolara itzulera” heldu den arte; orduz geroztik, denboraldia nahiko lasaia izaten ari da.

Ileapaindegiei dagokienez, Amaia Lauzirikak, Getxo Enpresaren ordezkariak, adierazi du %70 eta %80 bitartean egon dela pandemia osoan zehar. Horrez gain, adierazi du asteburuetan oso lan gutxi izan dutela, aurtengo irailera arte ez zirelako ekitaldiak antolatzen. Bestalde, jasotzen dituzten bezeroak txandakakoagoak eta autonomoagoak dira: produktuak erosten dituzte gero etxean tratamenduak egiteko.

Amaia Sertutxak, Algortako Her moda saltokiari dagokionez, bere sektoreari buruzko inpresio ona du, eta Covidarengatik terrazak handitzeak mesede egin diela uste du. Bere kasuan, enpresa bezala hazten ari da eta salmentek gora egin dute.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Romo Biziriketako ordezkari den Bordados Aingarako Ainhoa Calderónek gaur egun Romo oso lasai dagoela uste du, gainera, bere sektorea kaltetu egin da auzoan ez direlako festak ospatu. Maite Sesumagak, aldiz, bere Maiteskulanak denda kokatzen den Romoko aldean jende-mugimendua antzematen du, agian, jende asko mugitzen den gunea delako eta covidaren eraginez terraza asko ireki direlako.

Elikaduraren arloari dagokionez, Juan Mari harategiko Itxaso Zelaiak adierazi du lanean ongi dabilela nahiz eta badakien gunere berean ondo pasatzen ari ez diren beste negozio batzuk daudela. Oro har, sektoreak hobera egin zuen pandemiaren hasieran, baina gaur egun gutxiago saltzen ari dira, herritarrak etxetik kanpo jatera itzultzen ari baitira. Gozogintza arloko Zuricalday-Neguriko Kimetz Garate bat dator Itxasorekin. Gainera, apirilean, mugak zabaldu zituztenean, bezeroen beherakada bat nabaritu zuen jendea bigarren etxebizitzetara joaten hasi zelako.

Joyería Iñaki bitxidendako Jokin Arestik uste du gizarteak baduela dirua baina lehenetsunak aldatu egin direla. Orokorrean, gazteak ez dira saltoki bakarrari leialak, eta berehalakotasuna nahi dute. Horrez gain, bidaiatzeari (adibidez) garrantzi handiagoa ematen diote toki on batean jatearekin edo bitxi bat erostearekin alderatuta.

Bestalde, udal teknikariek jakinarazi dute Getxo Ekinez planaren baitan kontsumo-ohitura berriak eta Covidaren osteko sare komertzialaren egoera aztertuko dituen jarduketara bat aurreikusita dagoela. Gainera, mahaiari eskatzen zaio sektorearekin partekatzea udalak doako aholkularitza-zerbitzua duela aldaketak lantzeko edo negozioa birplanteatzeko, egoerari hobeto egokitzeko edo bezero berriak erakartzeko, besteak beste.

## 2. Honako gai hauek jorratzen dituen informazioa:

### a) GETXO BONUS 2021: KANPAINAREN INGURUKO DATUAK

Guztiok daude harrিতa aurtengo bono guztiak hiru astetan saldu izanarekin, eta mahaiari 2021eko irailaren 20an bildutako datu guztiak eta sektoreka trukaturako bono guztiak erakutsi zaizkio, xehetasunekin (ikus 4., 5. eta 6. diapositibak). Uste da atxikitako 280 saltoki kopuru baxua dela udalerrian daudenen guztizko kopuruarekin alderatuta. Horrez gain, abenduaren 31n bono bakarra ere trukatu ez duten saltokiei deitu egingo zaie gertaera horren zergatiak aztertzeko.

Aurkeztutako emaitzak taldean aztertu ondoren hurrengo Getxo Bono kanpainarako zenbait neurri proposatu dira:

- Pertsonako erabilera mugatzea:
- Bonoari iraugitze data jartzea.



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

- Trukea sektoreka mugatzea, horien zirkulazioa saltoki kopuru handiagora bideratzeko.
- Merkealdi denboralditik kanpoko kontsumoa.
- Aran-denboraldietan edo mugatutako bi txandatan zentratua: Martxo eta iraila (mahaiak proposatutako datak).

Jakin bezain laster jakinaraziko dute udal teknikariek hurrengo Getxo Bono kanpainarako ezohiko partida bidez bideratuko den diru kopuruaren zenbatekoa.

Era berean, "GetxoBono: ostalaritza" kanpainaren bidez eskuratutakoaren datuak azaldu dira labur-labur (ikus zehaztasunak 7. diapositiban) eta mahaiari jakinarazi zaio eredu honek ere aldaketak jasango dituela datorren urteari begira, sektoreak berak erabaki duen bezala.

## **b) ETEKINEN MERKATUA**

Oraingo edizioaren balantzea egin da bildutakoekin, eta jakinarazi da parte hartu duten saltokien kopurua 46 izan dela, orain arteko daturik txarrena (ikus zehaztasunak 8. eta 9. diapositibetan). Saltoki horietako gehienak Algortan zeuden. Hala ere, bildutakoei erabilitako datuak helaraziko zaizkie (auzoka, sektoreka etab.).

Teknikari-taldeari bereziki arduratzen die atxikitako saltokien kopuruak, kanpainaren arrakasta atxikitako saltokien araberakoa baita, eta kopuru hori ez da batere erakargarria. Udaletik egindako deien ostean, kanpainan parte hartu duten merkatariek adierazi dute Bide Publikoko Sailetik eskatutako plana eta aseguru ezin izan direla parte-hartzerik ezaren arrazoi izan, sinpleegia baita. Parte-hartzaileek merkatarik batzuen interes faltari eta utzikeriari egotzi diote, Getxo Bonorekin gertatu den bezala.

Dena den, mahaiak beharrezko jotzen du etorkizunean merkatuak antolatzen jarraitzea. 2022ko hurrengo bi datak adosteko asmoarekin mezu elektronikoa bat bidaliko da. Gune bakoitzeko ordezkariak eta elkarteak bi data horiek adosteko epemuga bat ezarriko da bertan.

## **c) TOKIKO KONTSUMOAREKIKO SENTSIBILIZAZIO ETA SUSTAPEN KANPAINA.**

Kanpaina horren leloa "Garrantzitsuena beti eskura" da, eta Enpresen Kontsulta Foroak eskatuta sortu zen. Kanpaina horren helburu nagusia udalerriko establezimenduen kontsumoa sustatzea da. Kanpaina honek bi merkaturatze- edo indartze-txanda zituen: bata maiatza-ekaina bitartean



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

eta, hurrengo, urria-azaroa bitartean. Hainbestez, jakinarazten zaie ezen urritik aurrera publizitate-euskarriak berriro helaraziko zaizkiela, partekatu ahal izateko.

Ildo horri jarraikiz, eskuratu diren datuen emaitzak erakusten zaizkie batzarkideei (ikus xehetasuna 20-21. diapositibetan). Horrezaz gainera, gauzatutako intzidentzia eskualde mailakoa zen: Getxo, Leioa, Erandio, Sopela, Berango, Plentzia, Barrika, Gorniz eta Urduliz.

Bildutako batzuen artean nagusi den ustea da kanpainak ez duela behar besteko oihartzuna izan. Teknikoki berrikusiko da, urrian areagotzeko.

#### **d) GETXON: MARKA BERRITZEA.**

Marka hori bere garaian tokiko saltokiak multzokatzeko sortu zen arren, gaur egun zaharkitua eta geldirik dago. Horregatik, sektore mahaien aurreko bileretan eskatu moduan, bigarren aukera bat eskaintzea eta zentzu zabalagoa emateko berriz ere diseinatzea proposatu zen. Helburua udalerriko enpresa parke guztia bertan biltzea (hau da, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, aisialdia, eta abar) eta sektoreen arteko konexioa indartzea da, hala, jende gehiagorengana heltzeko.

Beraz, proiektu horretan lanean hasiko gara, eta, horretarako Maria Goñi diseinatzaile grafiko getxotarra kontratatuko da. Hala ere, sektore bakoitzak bere ekarpenak egin beharko ditu guztientzako adierazgarria izan dadin, eta, horretarako, sektore guztiekin eta aipatutako profesionalarekin bilera bat egingo da. Ideia nagusia hiruhileko honetan gauzatzea eta saltokien bilatzailea berritzeko proiektuarekin lotzea da.

#### **e) SALTOKIEN-BILATZAILEA BERRITZEA.**

GetxON marka, era berean, udalaren establezimenduen bilatzailearen birdiseinuari lotuta egongo da, zeina mugatua eta estatikoa baita.

Ildo horretan, asmoa da informatika-arloarekin barne-lana egitea, kalitateko eta diseinuko edukiei dagokienez barne-tresna hobetzeko, bilatzailearen onlineko posizionamendu ona lortu ahal izateko. Horretarako, Inboost enpresa kontratatuko da, udalerriko eskaintza eta eskaria sakon aztertuko dituen (ikus xehetasunak 12-13 diapositibetan), eta establezimenduei jakinaraziko zaie informazio hori jasotzen hasi direla.

Lehenik eta behin, ostalaritzarekin egingo da lan, gaur egun turismo sailak emandako informazio ugari dagoelako sektore horri buruz.



## f) DINAMIZAZIORAKO 2021ERAKO LAGUNTZAK

Laguntza-lerro hauen emakiden ondoriozko proiektuak eta berauen esleipendunak azaldu dira (ikus xehetasunak 14-15-16 diapositibetan) eta aukera aprobetxatu da batzarkideak hurrengo urteari begira horiek eskatzera animatzeko.

Amaia Lauzirikak, zehazki 1. lerroari buruz, laguntza hauek al bait arinen abiatzea proposatu die udal teknikariei, elkarrekin denboraz heldu daitezkeen aurreikusita dituzten ekintzetara.

Halaber, lerro horien eskatzaile guztiei gogorarazten zaie ez dagoela urte amaierara arte itxaron beharrik laguntza justifikatzeko. Izan ere, jarduera amaitzen denean egitea komeni da, zeren eta horrela diru-laguntzaren gainerako zatia kobratzen baita.

## g) COVID-19ARI AURRE EGITEKO APARTEKO LAGUNTZAK.

Covid-19ari aurre egiteko aparteko laguntzei dagokienez, atxikimenduen lehen epealditik (05/29 - 06/14) atera diren datuak honako hauek izan ziren:

- **257 eskabide:** 248 laguntza eman ziren, guztira 324.680 euro; 6 eskabide ukatu ziren, eta 3 enpresak atzera egin zuten.
- Enpresa onuradunen profila:
  - 173 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **sektorea ixteagatik.**
  - 75 enpresak eskatu zituzten laguntzak, **udalerrriaren itxitura perimetralagatik.**
- Enpresen **sektoreen** arabera:
  - Ostalaritza: 173 (% 69,8)
  - **Turismoaren arloko zerbitzuen enpresak: 27 (% 10,9)**
  - Ostatuak: 5 (% 2)
  - Taxiak: 43 (% 17,3)
- Enpresen forma juridikoaren arabera:
  - Pertsona fisikoak: 144 (% 58,1)
  - Ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko beste elkarte batzuk: 29 (% 11,7)
  - Pertsona juridikoak: 75 (30,2%)



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Bigarren epealdian (05/11 – 06/30), **hirugarrenean (gaur egungoan, 09/01 – 09/15)** legez, ez da eskabiderik jaso. Hala ere, laguntza hau urtea amaitu arte egongo da indarrean, gerta daitezkeen egitateengatik

Informazio-kuadrua:

[https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS\\_COVID\\_2021/Web\\_Ficha\\_Resumen\\_Ayudas\\_Covid\\_2021\\_eus.pdf](https://www.getxo.eus/DocsPublic/getxolan/AYUDAS_COVID_2021/Web_Ficha_Resumen_Ayudas_Covid_2021_eus.pdf)

## **h) GETXO BIHOTZETIK" PROIEKTUA.**

*Getxo bihotzetik proiektua* aipatzen da, "GetxoEkinez!" en onartutako ezohiko proiektuetako bat legez. Proiektu horrek mahai sektorialen eskaera batzuei erantzuten die, eta helburu nagusi hauek ditu:

- ✓ Ostatu-gauak areagotzea.
- ✓ MICE (Meetings, Incentives, Conventions and Exhibitions) zerbitzuak eta baliabideak Bilbo Handiko eta Bizkaiko enpresei ezagutaraztea.
- ✓ Getxora estatuko eta nazioarteko kalitate-talde berriak erakartzea.

Horretarako, lantalde bat sortu zen, non zerbitzuen hornitzaileak eta ekimenak garatzeko arduradunak sektore berekoak baitira, Udalaren laguntzarekin. Talde eragilea Mice Design-eko Virginia Pérez eta Go Basquing-eko Iñigo García Valenzuela dira.

Ondoko hauek dira jarduera-ildo nagusiak:

1.- *Nola proiektatuko garen eta zer erakarri nahi dugun definitzea*, Getxo markaren balioak identifikatuz eta gure produktuak eta zerbitzuak kokatzen lagunduko diguten "istorioak" sortuz. Getxoko mahai sektorialekin eta enpresa-sare osoarekin parte hartuz eta lan eginez.

2.- *Beren negozio-eredua edota zerbitzu-eredua berrikusteko interesa duten enpresei laguntzea*, hobekuntza-arloak definituz eta produktu eta esperientzia berriak zehaztuz, edota egun badaudenak MICE merkatuan saltzeko egokituz.

3.- *Online komunikatzeko eta merkaturatzeko kanpaina*, "istorio", zerbitzu edota produktu horiek zabaltze aldera.

4.- *Alderantzizko merkaturatze-jardunaldiak antolatzea*: Fam-Trip (familiarizazio-bidaia) presentzialak (5) eta birtualak (10), eskaintza enpresa eta eragile interesgarriari ezagutarazteko, erosi edota merkaturatu ahal izateko.

Adibide gisa, goiz oso batean udalerrian zehar hainbat jarduera antolatzen dira beraiantzat, enpresa horiek esperientziak bertatik bertara



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

bizi ditzaten eta eskaintza horren atzean dauden enpresak ezagutu ditzaten loturak ezarri ahal izateko. Gakoa bereizketa da, hots, jarduera edo istorio bakar eta desberdinak eskaini ahal izatea.

Orain arte, maiatzetik ekainera, burutu diren ekintzak eta irailetik abendura bitartean egingo direnak azaltzen dira (ikus xehetasunak 18-23 diapositibetan). Argigarri gisa, bideo hau ematen da:

<https://drive.google.com/file/d/1oOYHWL22F94Yk3tN6gLOmSb92lagYcr3/view?usp=sharing>

Enpresa guztiek parte har dezakete proiektu honetan, eta bat egin dezakete honako helbide elektroniko honetara mezu bat bidaliz: [visitgetxo@getxo.eus](mailto:visitgetxo@getxo.eus)

## **i) GABONETAKO KANPAINAK 2021.**

2020an zehar egindako ekintzak gogorarazi dira labur-labur (ikus zehaztasunak 24. diapositiban) eta kaleko jarduera jendetsuek oraindik baimendu gabe jarraituko dutela aurreikusi da. Hala ere, bildutakoei ideia berriak proposatzeko deia egin zaie, gabonetarabegira lanean hasteko, eta honako proposamen hauek egin dira:

- “Tokiko ekonomia sustatu eta horren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina”-ren diseinu egokitua duten telazko poltsen banaketa.
- Udalerriko auzo bakoitzerako saltokietako kontsumoaren inguruko informazio-txabolak jartzea.

Teknikoki bi proposamenak baloratuko dira, gutxi gorabeherako aurrekontuak egiteko asmoarekin.

## **j) ONLINE PRESTAKUNTZAK ETA BATUZ SISTEMA.**

- Batuz Sistema:

Berrikuntza gisa, jakinarazi da Foru Ogasunak bere nahitaezko ezarpen-data **2024ko urtarrilaren 1era** luzatu duela. Hala ere, egokitzapena data hori baino lehen egiten duten enpresa guztiek oraindik zehaztu gabeko zerga-kenkariak jasoko dituzte Foru Ogasunaren aldetik.

Horrezaz gainera, Enpresen Kontsulta Foroan landutako eskaeretako bat, atzo politikariei Kontraste Mahaian helarazi zitzaiena, enpresei zuzendutako laguntza-lerro bat abiarazteko aukera zen, trantsizio horrek sektoreei ekarriko dizkien inbertsio guztiei aurre egin ahal izateko. Udal teknikariak horren inguruan hartuko den erabakiaren zain daude.





# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

Egokitzapen horretan lanean jarraitzeko, online informazio-jardunaldiak eskaintzen jarraituko da, bai eta ondorik banakako aholkularitza jasotzeko aukera ere. Hurrengo saioak honako hauek izango dira:

- 09/29; 13.30etatik 14.30etara
- 11/09; 13.30etatik 14.30etara

Izen-emateak webgune honetan jasoko dira: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) (egun bat lehenago, gutxienez)

Batuz sistemari buruzko informazio gehiago hemen:

<https://www.batuz.eus/eu/hasiera>

- Homologatutako softwareen zerrenda:  
<https://www.batuz.eus/eu/software-erregistroa>
- Borondatez ezartzeko pizgarrien iragarkia:  
<http://ow.ly/AB5I50GjXT3>

Garrantzitsua da aipatzea, halaber, aukeratutako softwareak ez duela "b kontabilitatea", isun larriak jarriko baitzaizkie instalatuta duten guztiei, nahiz eta ez erabili.

- Online prestakuntzak:

Parte-hartzaileei jakinarazi zaie online bidezko doako prestakuntza-ikastaro gehiago daudela. Hobetzen eta hazten jarraitzeko interesgarriak dira kudeatzaileentzat nahiz plantillarentzat (ikus 27 diapositibak).

Bereziki aipatzen da prestakuntza horiek guztiak **Etika Kodearen** programaren barruko prestakuntzat hartzen direla, eta, hainbestez, **emaitzetan puntuatzen dutela urte amaieran erdietsitako beharkizunei dagokienez**. Horregatik, programa honetan parte hartzen arituz gero, egindako ikastaroen berri ematea hagitz garrantzitsua dela jakinarazten da.

Bestalde, ostalaritza-sektorerako ikastaro espezifikoaren egutegiaren berri eman da, zehatz (ikus 10. diapositiba).

Informazio gehiago: <https://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/544>



## k) 2022. URTEARI BEGIRA: Ekintzak Getxo Ekinez planaren baitan

- ✓ **MERKATARITZABIRGAITZEKO PLANA (PERCO):**  
Aurretiaz azaldu den bezala, kontsumo-ohitura berriak eta Covidaren osteko sare komertzialaren egoera aztertuko dituzten jarduketak egingo dira.
- ✓ **HUTSIK DAUDEN LOKALEN KUDEAKETA:**  
Aurrekontu bidez hornituko da, kale degradatuetan hutsik dauden lokalak etxebizitzetan dauden eta kalean egon daitezkeen ekintzaileek edo enpresek bete ditzaten sustatzeko. Edozein motatako negoziok izan ahalko dira laguntzen onuradun, ostalaritzakoak izan ezik, baina merkataritzari, ongizateari, industriari, sorkuntzari eta kulturari lotutakoak lehenetsiko dira.

Mahaiak beharrezkotzat jo du kudeaketa horretarako aintzat hartzea zein motatako saltokiak jartzen diren eta sektore bereko saltokiekiko gertutasuna, lehia saihesteko. Gune bakoitzean mota horretako saltoki gutxi dituen sektoreko saltokiak jartzea proposatu da. Alderdi teknikitik aldagai hori aintzat hartuko da.

- ✓ **DIGITALIZAZIORAKO LAGUNTZAK.** Diru-laguntzen deialdi bat egingo da, udalerriko saltokiek digitalizazioaren arloan egiten dituzten inbertsioei eta gastuei erantzuteko, bai salmentarako, bai kudeaketarako.
- ✓ **ELIKADURA OSASUNGARRIA SUSTATZEKO KANPAINA:**  
Helburua osasungarriak, 0 Km-koak, jatorrizko deitura duten elikagaiak etab. salduko dituzten saltokien komunitate txiki bat sortzea da, horiek ezagutarazi eta balio berezi bat emateko. Horretarako, elikadura arloko saltokiei dei egingo zaie eta arlo honen inguruko informazioa bilduko da.

### 3. Ideia eta proposamen berriak.

Aipatu da ezen une honetan Udala eta administrazio publikoak 2022rako aurrekontuak prestatzen ari direla, eta urtearen hasieran itxi ohi direla. Joan den irailaren 13an, Kontraste Politikorako Mahaian, urte hasierako mahaietatik atera ziren sektoreen eskaera eta behar askoren berri eman zen.

Nolanahi ere, sektoreko enpresei eskatzen zaie sektorearen egoera orokorra hobetzeko landu beharreko proposamen edo gairen bat dagoen baloratu dezatela, horren berri emateko unea baita. **Epemuga: urriaren**



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

**30a baino lehen.** Horretarako, ondorengo helbide elektronikora bidali ahalko dira ekarpenak

[enpresenaholkuforoa@getxo.eus](mailto:enpresenaholkuforoa@getxo.eus)

Mahaian honako ideia honek proposatu dira:

- Gau zuria. Ikusgarritasuna lortu eta mugimendua eragiteko.
- Getxo Moda. 2022ko udaberrira atzeratua.
- Gabonetako poltsak. Abendu hasieran banatzeko eta Getxon ekoitziak.
- Azaroak 25: Genero indarkeriaren aurkako eguna. Merkataritzaren parte-hartze aktiboagoa. Ideia Berdintasun Sailari helaraziko zaio.
- Merkataritza sare bat eratzea edo hutsik dagoen lokal bat gaitzea kontsigna modura. Udal teknikariek proposamenaren alderdi ekonomikoa aztertuko dute.

#### 4. Galderak, iradokizunak eta beste gai batzuk:

BIZKAIA BONO DENDA ekimenera atxikitzeke epea zabaldu da **urriaren 5era arte**.

Informazio gehiago: <https://www.bizkaiabonodenda.eus/es/>

#### 5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa: urriaren 5ean. Foro horretan, Sektoreko ordezkariak lehenetsuna emango diete mahai sektorialetatik jasotzen diren proposamenei. Ostalaritza Mahaiko proposamenak horien ordezkariak defendatuko dituzte – Amaia Lauzirika (Getxo Enpresa), Ainhoa Calderon (Romo Bizirik) eta Amaia Sertutxa (Algortako Dendak).

MERKATARITZA MAHAIAREN AKORDIOAK (2021/09/23):

| ERABAKIAK/EKINTZAK  | ARDURADUNA             | DATA              |
|---|------------------------|-------------------|
| 1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea   | Zerbitzuko teknikariak | Bileratik aurrera |
| 2. Gabonetako poltsak. Aurrekontuaren azterketa   | Zerbitzuko teknikariak | Bileratik aurrera |
| 3. Genero indarkeriaren aurkako eguna. Berdintasun Sailari merkataritzaren parte-hartze aktiboagoaren ideia helarazi              | Zerbitzuko teknikariak | Bileratik aurrera |
| 4. Merkataritza sare bat eratzea edo hutsik dagoen lokal bat gaitzea kontsigna modura. Proposamenaren alderdi ekonomikoa aztertu. | Zerbitzuko teknikariak | Bileratik aurrera |



# Getxo

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

*bizi ezazu*

|   |                            |                          |
|---|----------------------------|--------------------------|
| 5. Urrira begira, tokiko ekonomia sustatu eta horren inguruan sentibilizatzeko kanpainak izandako eraginaren areagotzea berrikustea.                        | Zerbitzuko teknikariak     | Bileratik aurrera        |
| 6. Hutsik dauden lokalen kudeaketarako aintzat hartzea zein motatako saltokiak jartzen diren eta sektore bereko saltokiekiko gertutasuna, lehia saihesteko. | Zerbitzuko teknikariak     | Bileratik aurrera        |
| 7. Sektorearen egoera edo/eta kokapena hobetu dezaketen proposamen gehiago igorri 2022an egikaritzeko.  | Turismo sektoreko enpresak | Urriaren 30a baino lehen |